

**ERABAKIA, 2017ko UZTAILAREN 7koa, UPV/EHUko GERENTEARENA, GIPUZKOAKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKARAKO F 230 BIBLIOTEKAKO ATALAREN ARDURADUNA LANPOSTUA ZERBITZU BETEKIZUNETAN ALDI BATEZ BETETZEKO DEIALDIA BERTAN BEHERA UZTEN DELA IRAGARTZEKO DENA.**

### **EGITEZKO AURREKARIAK**

Erabaki honen eranskinean aipatutako ezaugarriak dauzkan lanpostua zerbitzu betekizunaren bidez betetzeko deialdia, Gerentearen 2017ko maiatzaren 26ko Erabakiaren bidez iragarri zen.

Aipatutako deialdia egiteko arrazoa izan zen lanpostuaren titularrari beste lanpostu batean zerbitzu betekizunak esleitu zitzaizkiola.

Azken funtzionario horrek, 2014ko uztailaren 1eko Akordioko 11. artikulua babesean, idatzi bat aurkeztu zuen 2017ko ekainaren 30ean eta bertan uko egin zion esleitutako zerbitzu betekizunari. Uko egite hori berretsi egin zen 2017ko uztailaren 7ko erabakian.

Titularra bere lanpostura itzuli denez, lanpostu hori betetzeko premia desagertu egin da, baita, ondorioz, hura betetzeko hasitako prozedurarekin jarraitzekoa ere.

### **ZUZENBIDEKO OINARRIA**

**Lehenengoa.**-Kasu honetan honako lege hauek aplikatu behar dira: Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-Prozedura Bateratuaren 39/2015 Legea (urriaren 1ekoa), Euskal Herriko Unibertsitateko Langileen Lan-Baldintzak Arautzeko Akordioaren 65,2. artikulua (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAn argitaratua) eta administrazio eta zerbitzuko pertsonaleko funtzionarioaren zerbitzu-betekizunen prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionario Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa. Akordioa, Gobernu Kontseiluak berretsi zuen 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez (2014ko abuztuko 27ko EHAAn); gainerako arau orokorrak eta eurekin bat datozen beste guztiak.

**Bigarrena.**- Gerentziak eskumena dauka erabaki hau emateko Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko den 2017ko urtarrilaren 25eko erabakiarekin bat etorri (2017ko otsailaren 3ko EHAAn)

**Hirugarrena:** Administrazio-Prozedura Bateratuaren Legearen 84.2 Artikuluari jarraituz, "Prozedura amaitu egingo da, era berean, gerora sortutako arrazoiak direla eta prozedura ezin bada inola aurrera eraman. Emango den ebazpenak, beti ere, arrazoitua izan behar du"

Hori guztia kontuan hartuta, eman dizkidaten eskumenen babesean, honakoa

### **ERABAKI DUT**

**Bakarra.**- Erabaki honen eranskinean zehazten den lanpostua aldi baterako zerbitzu-betekizunetan betetzeko deialdia (2017ko maiatzaren 26ko Erabakia) bertan behera uztea, eta honezker, hautaketa-prozesua amaitutzat jotzen da.

## ERREKURTSOAK

Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean, hilabeteko epean edo, nahiago bada, zuzenean jarri ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jurisdikzio horretan eskumena duen epaitegian; horretarako hilabete bi egongo dira, erabaki hau 2014ko uztailaren 1eko akordioaren 5.2. artikuluan adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Leioan, 2017ko uztailaren 7an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria).

GERENTEA,

Miren Lorea Bilbao Arteche



## I. ERANSKINA

**Izena:** Bibliotekako atalaren arduraduna

**Erref.:** F 230

**Lanaldia:** Arautua

**Zenbatgarrena:** 8

**Taldea:** B

**Eskala edo kidegoa:** Artxibo, Biblioteka eta Museoetako laguntzailea

**Maila:** 22

**Hizkuntza eskakizuna:** 2 derrigortasun-data: 2011/05/31

**Langunea:** GIPUZKOAKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKA

**Campusa:** GIPUZKOA

